

ERABAKIA, 2019ko urtarrilaren 17koa, Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateko Gerentearena, **ONDARE ETA KONTRATAZIOKO GERENTEORDETZA** Ikastetxe edo Zerbitzurako **F 196 Postako laguntzailea** lanpostua aldi baterako zerbitzu betekizunen bidez betetzeko deialdian parte hartzeko **ONARTUTAKO ETA BAZTERTUTAKO IZANGAIEN BEHIN BETIKO ZERRENDA** onartzeko dena.

Deialdia 2018ko abenduaren 11ko Erabakiaren bidez egin zen, UPV/EHUko gerenteak emandakoa.

ARAU APLIKAGARRIAK

- Akordioa, 2017ko uztailaren 18koa, AZPko funtzionarioaren plangintza batzordearena, AZPko funtzionarioei zerbitzuen eginkizunak esleitzeko prozedura barematua ezartzeko buruzkoa 2017ko irailaren 28an Euskal Herriko Unibertsitateko Gobernu Kontseiluak berretsia (2018ko maiatzaren 21eko EHAA)..
- Euskal Herriko Unibertsitateko errektoreak 2017ko urtarrilaren 25ean hartutako erabakia, gobernu taldearen egitura eta funtzionamendu-arloak zehazteko eta eskumenen eskuordetzeko dena (2017ko otsailaren 3ko EHAA) .

Beraz, Gerentzia honek,

ERABAKI DU

Aipatutako deialdian onartutako eta baztertutako izangaien behin betiko zerrenda argitaratzea, UPV/EHUko web-orrian, Administrazio eta zerbitzuetako langileak. Hautaketa eta hornikuntza. Barne-deialdiak.

Erabaki honek administrazio bidea agortzen du, eta bere aurka, nahi izanez gero, berraztertze errekurtsoa aurkez daskioke Gerentzia honi hilabete epean, edo, bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke zuzenean dagokion Administrazioarekiko Auzien Epaitegietan. Horretarako hilabete biko epea izango da, erabaki hau UPV/EHUko web orrian argitaratu eta biharamunean kontaktzen hasita.

Leioan, 2019ko urtarrilaren 17an

Errektorearen eskumenak eskuordetuta: 2017ko urtarrilaren 25eko erabakia (2017ko otsailaren 3ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria).

UPV/EHUko Gerentea

Miren Lorea Bilbao Arteche



I. ERANSKINA

ONARTU ETA BAZTERTUEN BEHIN BETIKO ZERRENDA ZERBITZU BETEKIZUNA - 18/12/11 (e)ko DEIALDIA

1670

F 196

Postako laguntzailea

Hor. 2

HE

1

ONDARE ETA KONTRATAZIOKO GERENTEORDETZA

(Gurakoei dagokien lehentasun-taldearen arabera ordenatua)

a) Deitutako lanpostuaren talde eta eskala bereko karreradun funtzionarioak.

lehentasuna

EZ DAGO ATAL HONETAKO GURAKORIK

b) Deitutako lanpostuaren talde bereko baina eskala desberdineko karreradun funtzionarioak

lehentasuna

EZ DAGO ATAL HONETAKO GURAKORIK

c) Deitutako lanpostuaren beheagoko hurrengo talde eta eskalako karreradun funtzionarioak.

lehentasuna

EZ DAGO ATAL HONETAKO GURAKORIK

* BAZTERTZEKO ARRAZIOIAK: 1: Epez kanpo aurkeztutako eskabidea; 2: Deialdian onartzen diren talde edo eskalen batean karreradun funtzionarioa ez izatea; 3: Lanpostua betetzeko eskatutako titulazioa ez edukitzea; 4: Eskatutako hizkunta-eskakizuna eskakizuna ez edukitzea; 5: UPV/EHUKo funtzionarioa ez izatea; 6: Deialdia argitaratu aurreko urtebetean, prozedura honen bidez, zerbitzu betekizunetarako izendapena izatea; 7: Eskatzen den hizkuntza jakitearen ziurtagiria ez aurkeztea. 8. Erregistratu gabeko eskabidea. 9. Deialdiari uko egitea. 10: Beste zerbitzu betekizuneko deialdian esleipendua.